



Materia ilunaren misterioa azaltzeko teoria erraz bat proposatu dute

Unibertsoko materia ia guztia anapolo izeneko eremu elektromagnetiko berezi bat duten partikulez osatuta egon daiteke. Hori proposatu dute Vanderbilt Unibertsitateko bi fisikari teorikok; haien arabera, materia ilunaren osagaiak Majorana fermioiak dira, eta erroskila-itxurako eremu elektromagnetiko bat dute.

Beste zientzialari batzuek ere proposatu izan dute Majorana fermioiak direla materia ilunaren osagaia, baina galdera gehiegi uzten zituzten airean. Orain, eremu elektromagnetiko berezi horrekin, galdera horiei erantzutea lortu dute Vanderbilt Unibertsitateko ikertzaileek.

Physics Letters B aldizkari espezializatuan argitaratu dute ikerketa, *Anapole Dark Matter* izenburupean. Hain zuzen, anapolo deitu diote eremu elektromagnetiko horri. Ohiko eremuaren aldean, ez ditu bi polo, erroskila-itxura baizik, eta horrek azaltzen ditu partikulek dituzten ezaugarriak eta hain zailak izatea detektatzeko.

Ikertzaileen ustez, egin duten ikerketaren ezaugarri nagusia "sinpletasuna" da, eta egin dituzten ikerketen emaitzak aurreikuspenekin bat datozela baieztatu dute. ●



Goian, anapoloaren irudikapena. Behean, ohiko eremu elektromagnetikoaren irudia. ARG.: MICHAEL SMELTZER, VANDERBILT UNIBERTSITATEA.

Larunbatetan,
15:00etan

Eta Interneten:
<http://norteko.elhuyar.org/>

Irailaren
14tik
aurrera

Zientzia
eta teknologia
Euskadi Irratiaren
sintonian,
Guillermo Roaren
eskutik



NORTEKO FERROKARRILLA

eitb

elhuyar
Zientzia